

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	06 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
<b>Atala:</b>	0601 - Ogasun eta Finantzako Zerbitzu Orokorrak
<b>Programa:</b>	010 - Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak
<b>Funtzionala:</b>	920 - Administrazio orokorra

### Programa mota:

Departamentuaren egitura

### Misioa:

Proposatzea, zuzentzea eta berrikustea Foru Aldundiaren 2020-2023aldiko helburu estrategikoak lortzeko zerga eta finantza arloko politikak. Horretarako, haiek ezartzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira, herritarrek zerbitzu publikoaz duten balorazioa egokia izatea lortuz. Laguntza juridiko eta teknikoa ematea, departamentuko unitateek departamentu helburuak lortze aldera, betiere zerbitzu haren efizientziari lehentasuna emanez; halaber, departamentuko organoen legezketasunaren eta gastuen kontrol zereginak beteko ditu

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Ogasun eta Finantza Departamentuak Ekonomia Itunean araututako zerga sistema kudeatzen du, eta zerbitzu publikoak mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak hornitzen ditu.

Herritarrek gogobetetze maila handia erakusten dute, zerbitzu kartetan jasotako balioak beteta.

Langileen zati handi bat lan bizitzaren denbora bukatzen ari da. Plantilla.

Baliabide teknologikoei dagokienez, etengabeko garapena beharrezkoa da.

### Beharraren eboluzioa:

Programaren bidez, antolakundea modernizatzen jarraitu nahi da, bai eta departamentuak bere helburu estrategikoak betetzeko baliabideen efizientziarako tresna gisa funtzionatzea ere.

Gainera, erantzun nahi zaio departamentuko zerbitzuen funtzionamendu arrunterako behar diren baliabideak administratzeko beharrari, inbertsio teknologikoa lehenetsiz egungo prozesuak digitalizatzeko, administrazio elektronikoko proiektuak bultzatzeko eta telelana seguru egiteko.

### Nori zuzendua:

Departamentuko langileak, eta herritarrak.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Zuzendaritzak departamentuaren eremuan erabakiak hartzeko eskura dituen baliabideak, eta zerbitzu orokorren arloan beharrezkoak diren prozesuak gauzatzeko dauden baliabideak.

Diru baliabideak.

Informatika baliabideak.

Aginte koadroa

### 2. Garatu beharreko

\* Bultzatu departamentuaren Plan Estrategikoa.

\* Identifikatu interes taldeak. Identifikatu antolaketaren, giza baliabideen eta baliabide teknologikoen arloko beharrak.

\* Kudeatu langileak.

\* Kudeatu aurrekontuak eta kontratuak.

\* Sustatu Zerga eta Finantza Administrazioan bitarteko elektronikoak erabiltzea.

\* Egin espedienteen izapidetze arrunta (barkatzeak, salaketak, ondare erantzukiunak...).

\* Erregistroa eta agiritegia.

\* Agirien tratamendua.

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

\* Departamentu antolaketa malgua, gizartearen eta bertako interes taldeen eskaeretikiko sentibera. Beharretara egokitutako plantilla.

\* Aholkularitza.

\* Kontratazio administratibotik eratorritako ondasun eta zerbitzuak.

\* Administrazio Elektroniko zeharkako zerbitzuak.

- \* Datuak babesteko politika.
- \* Izapidetutako espedienteak.

**Programaren arau esparrua:**

Administrazio, zerga eta finantza arloko legeria.


**2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**

**Urteko helburua:** Departamentua administrazio modernoaren erreferente bilakatzea, ingurune sozioekonomikoaren integrazioari, antolaketari eta berrikuntza teknologikoari dagokionez.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Aurrez aurreko baliabideak eta posta bidezkoak erabili beharrean, baliabide elektronikoak erabiltzeko erabiltzaileei ekarriko dien aurrezkiaren balioespena	Euroak	82.101.300,00	90.953.669,00	85.355.300,00	366.000.000,00
Elektronikoki erregistratutako izapideen ehunekoa.	Ehunekoak	84,26	82,50	87,14	85,00

**Joera**

Aurrez aurreko baliabideak eta posta bidezkoak erabili beharrean, baliabide elektronikoak erabiltzeko erabiltzaileei ekarriko dien aurrezkiaren balioespena – Euroak



Elektronikoki erregistratutako izapideen ehuneko. - Ehuneko



## Memoria

### L.1 - Gizartearen interesak departamentuak kudeatzen dituen politketan integratzea

#### 1. ekintza. Interes taldeekiko harremanen garapena

Interes taldeekiko harremanak batik bat lankidetzak sozialeko hitzarmenak sinatuz egiten dira, baita ordezkarien erroldako aplikazio informatikoaren bitartez ere, zeina erabiltzen baita zerga kudeaketako profesionalen harremanak kudeatzeko.

Zergen autolikidazio eredu puntualak telematikoki aurkezteko gizarte lankidetzako hitzarmenei dagokienez, 2022. urtean zehar bultzada bat eman zaie eta beste 138 atxikimendu berri izapidetzea lortu da (horietatik 66 TicketBAiren garatzaileenak). Gainera, laguntza gidak sortu dira, interesdunek errazago jakin dezaten nola bete behar dituzten hitzarmenera atxikitze eskatzen diren izapideak.

60A, 60T eta 60S ereduak sartu dira Zergen. Elkargoekin formalizatutako hitzarmenetan sartzeko, hitzarmen horien II. eta IV. eranskinak aldatu dira.

2022ko uztailan estrategia bat diseinatu zen 490 eredu aurkeztu behar duten enpresek erraz egin zezaten ordezkari bidez.

Zerga ordezkarien erroldaren aplikazioari eta zerga kudeaketako profesionalen hark duen loturari dagokienez, 2022an zehar datu hauek lortu dira:

- 107 profesional berri (guztira 2.099 profesional daude alta emanda).
- 11.903 ordezkari profesional berri (guztira 199.487 ordezkari daude alta emanda).

Gainera, zergen arloan, foru organismoekin jardura protokolo bat sinatu da, haien aldeko kredituak epe exekutiboan biltzeko:

- Zerga-bilketa: 38/2006 Foru Dekretuaren arabera, foru organismo autonomoen kredituen epe exekutiboko bilketa Ogasun eta Finantza Departamentuari egokituko zaio, eta aipatutako erregelamenduan xedatutakoari jarraituz arautuko da. Gipuzkoako Foru Ogasunaren eta Kabiaren artean jarraitu beharreko prozedura eta baldintzak finkatzeko, jardura protokolo bat sinatu da bi erakundearen artean.

Bestalde, zerga-bilketako hitzarmenei dagokienez, honako hauek aipatu daitezke:

- Lankidetzak hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Itsasoko Gizarte Institutuaren artekoa, lagapen hartzaileak bere eginkizunen barruan hala eskatuz gero zerga informazioa eskuratzen laguntzeko.

- Lankidetzak hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (Ogasun eta Finantza Departamentuaren) artean,

## Memoria

sozietateen gaineko zergaren foru araudian kultura sustatzeko aurreikusten diren pizgarriak aplikatzeko txostenak egiteari buruzkoa (2022/04/29an sinatua).

- Hitzarmena Gipuzkoako Urak SArekin, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren urteko kontuen auditoretza, Gipuzkoako Urak SAren urteko kontuak eta bi entitateen kontu bateratuak batera kontratatzeke (2022-05-10ean sinatua). Ur kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita dago, eta haren kontuak auditatzea kontrol organoari (Kontu-hartzaitzari) dagokio. Bestalde, Gipuzkoa Urak SA Kontsortzioaren bitarteko propio pertsonifikatua da izaeraz, eta haren kontuak auditatzeko obligazioa du. Hitzarmenean oinarrituta, Gipuzkoako Urak SAk egin du kontratazio prozedura, Kontu-hartzaitza Zerbitzuak ere parte hartuta.

- Hitzarmena Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearekin, berezkoak dituen zuzenbide publikoko diru-sarrerak bide exekutibotik biltzeko (2022-09-07an sinatua).

- Azkenik, administrazio kudeatzaileen elkargoarekin hitzarmen berri bat onartu eta sinatuta da.

Halaber, adierazi behar da ezen notarioen erabilera eksklusiboko paperaren salmenta eta trukea, 4. klaseko modalitatean, Donostiako Notarioen Ordezkaritzak banatu eta zentralizatzeko hitzarmenarekin lotuta, honako foru agindua onetsi dela: 242/2022 Foru Agindua, apirilaren 29koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak jaulkitako efektu tinbratuak trukatzeko baldintzak eta prozedura arautzen dituena.

### L.2 - Antolaketa malgua eta zeharkakoa

1) Prestakuntza: 2022. urtean zehar, kanpoko 12 ikastaro antolatu dira gai oso espezifikoetarako buruz, departamentuko zerbitzuei zuzendutakoak. 97 parte-hartzaile izan dira guztira, eta 105 ordu eman dira orotara.

2) Intranet: aldi-aldi, departamentuko zerbitzuentzat interesgarria den informazioa argitaratu da webgunean: Besteak beste, albiste hauek aipatu daitezke:

- AVANTIUS plataformaren ezarpenari buruzko informazioa (epaitegiekin informazioa lagatzeko plataforma berria, Euskadiko Justizia Administrazioak ezarria).

- Departamentuko ibilgailuak erregaiz hornitzeko eta aparkatzeko jarraibideen aldaketa.

- Hildako pertsonetara edo desegindako entitateetara zuzendutako jakinarazpenetan sartu diren aldaketak.

- GFAREN edozein sistema edo aplikaziotan identifikatzeko erabiliko den «profesionala hodeian» ziurtagiri elektronikoa izapidetzeari buruzko informazioa.

- Bitarteko elektronikoa erabiltzera behartuta egonik ere, gure datu baseetan helbide elektronikorik gabe ageri diren jakinarazpenetan jarraitu beharreko prozedurari buruzko informazioa.

- Etab.

Bestalde, lanean ari gara intranetako testuak sinplifikatzeko eta bertan argitaratzen den informazioa geruzaka erakusteko, barruko informazioa gehiago hedatzen lagundudko duen tresna izan dadin.

Gainera, aldi-aldi, lanak egiten dira departamentuko intraneteko edukiak diseinatzeko eta bertako informazioa kudeatu, mantendu eta eguneratzeko.

### 3) Euskara:

- Itzulpena:

Urtean zehar, nagusiki, ohiko itzulpen eskaerari erantzun zaio. Gainera, ItzulpenFlow aplikazioaren bidez hainbat itzulpen eskaera kudeatu dira, eta modu egokian erantzun zaie zerbitzuetatik iritsi diren zuzenketa eskaerei. Zerbitzuetako hizkuntza kontsultei ere erantzun egokia eman zaie.

- Hizkuntza berdintasuna:

- «Hizkuntza aukeratu, zerbitzu bikaina hartu» ekimenaren barruan hainbat euskarri inprimatu dira, eta artikulua bat argitaratu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren «Udalekin» ekimenaren intranetean.

- Hizkuntza ziurtagiria duten entitateetara zuzendutako jakinarazpena prestatu da.

- Aholkularitza eman zaio Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritzari (HBZN) Aldundiaren hizkuntza proiektu estrategikoen arloan, eta, Estrategia Teknologikoko zuzendariordearekin koordinatuta, TicketBAI sistemaren hizkuntza ikuspegia garatzeari dagokionez.

## Memoria

- Hizkuntza trebakuntzako programaren lauhilekoaren jarraipena egin da, trebatzaileen koordinatzailearekin.
- HBZnK antolatutako soziolinguistika ikastaroaren bigarren saioan parte hartu da.
- Hizkuntza irizpideak, gomendioak eta baliabideak eskaini zaizkie langile sartu berriei, harrera protokoloari dagokionez.
- Idazkaritza Teknikoaren hizkuntza plana moldatu da, hizkuntza irizpideak finkatu eta ekintzak zehazteko.
- Hizkuntza ziurtagiria egiaztatua duten entitateen eta udal sektore publikoko entitateen komunikazioa moldatu da, Zergabideako 036 ereduan hizkuntza aukera egiteko moduz informatzeko.
- 2022ko Euskaraldiaren aurkezpena antolatu da Ogasunean, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzak eskatuta.
- Hizkuntza adierazleak egiteko informazioa eskatu da.
- Departamentuan Euskaraldia antolatzen lagundu zaió Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzari.
- EBA aplikazioaren hizkuntza kudeaketari buruzko informazio saio bat antolatu da Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzarekin.
- Departamentuaren hizkuntza kudeaketari buruzko informazioa kargatu da EBA aplikazioan.

### 4) Berdintasuna:

Jarraian, 2022an egindako ekintzak deskribatzen dira:

- Zerga Politikako Zuzendaritzako zerbitzuekin, Erakundeekiko Konpromisoekin eta berdintasun organoarekin batera, parte hartu da genero ikuspegia zerga araudian txertatzeko prozesuan. Prozesuan 10 saio izan dira guztira, online eta presentzialak (1 2021ean eta 9 2022an), eta aurretik lan ez-presentziala ere egin da, baita bilerak ere departamentuko lan taldearekin eta berdintasuneko teknikariarekin (6 bilera). Prozesuan ikasi eta landutakoa dokumentu batean jasoko da, eta bertan sistematizatuta geratuko dira lanaren edukiari eta metodologiari dagokienez lortutako ondorio eta akordio nagusiak. Txostenen tipologia (eta irismena) adostu dira, dagoen kasuistika aintzat hartuta. Akordio horiek protokolo/jarraibide batean jasoko dira.

Emaitzak Berdintasun Zuzendaritzari eta Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzari aurkezteko data bat ezarri zen, baina 2023ko urtarrilera atzeratu da agenda arazoengatik.

### Oharra:

Jarraibideari begira, Berdintasun Zuzendaritzaren eta Zerga Politikako Zerbitzuaren oniritzia duen fluxugrama bat prestatu da. Prozesuaren ondoren, errazagoa izaten ari da adostasunak lortzea, eta argi eta garbi ikusi dira zailtasunak eta Ogasunaren kasuistika. Gainera, urte honetan zehar, prozesua aurrera eramatearekin batera, Ogasuneko txosten berriak egiten jarraitu da, baita Berdintasun Organoaren egiaztapen txosten berriak ere, eta testuinguru horretan, arrazoizko moduak adostu dira xedapen mota bakoitzari erantzuteko, prozesuaren emaitzak elikatzeko ere balio izan dutenak.

Genero ikuspegia sartzen jarraitzeak aukera eman du Ogasuneko taldeak proposamen egokiak egin ditzan, eta prozesuak proposamen horiek behar bezala azaltzea ahalbidetu du. Berdintasun taldea, bestalde, adierazitako egoera horietaz jabetu da, eta erantzun dimentsionatuak/egokiak emateko premia dagoela ikusi du. Prozesuan izan den elkarriketa giroak emaitza erraztu du. Gainera, prozesu honen ondorio praktikoak beste departamentu batzuentzat baliagarriak izatea espero da.

- Urtean zehar parte hartu da departamentuetako berdintasun unitateek Berdintasun Organoarekin egin dituzten bost bileretan, eta beste bi bilera espezifiko egin dira online, dirulaguntzetan genero ikuspegia txertatzeko (4/2005 Legearen aldaketa).
- Berdintasun Unitateak parte hartu du genero ikuspegia aurrekontu programetan txertatzeko prozesuan. Hiru osoko bilkuretan baino ez da parte hartu, ez programa pilotuen talde espezifikoetan.
- Azpeitiko LEP bateko epaimahai batean parte hartu da, Berdintasun Unitateko lanpostua duen funtzionarioa izateagatik.
- Parte hartu da kontratazio sozialki arduratsuari buruzko prestakuntzan (berdintasun klausuletan sartzea barne) + Kontratazio Zerbitzuak kontratuetan genero ikuspegia txertatzeko antolatutako bi tailer espezifikotan, 4/2005 Legearen aldaketa dela eta (hirugarren tailerra 2023ko urtarrilean egingo da).

### L.3 - Administrazio elektronikoa.

#### 1. ekintza. Negozio aplikazioen mantenimendu eta bilakaera

## Memoria

Ogasun eta Finantza Departamentuaren negozio aplikazioetarako aurten onartutako aurrekontua, aurreko ekitaldiko fakturazio aurreratua eta 2022. urtean izan duen gauzatze maila barne, honako hau da:

Aplikazioak	2022an onartutako enkarguak	
	Zenbatekoa	Exekuzio %
Aplikazio informatikoak. IZFE	5.170.000,00	% 70,73
Itzulketen plataforma	168.960,00	% 64,14
Ziurtagirien plataforma	270.000,00	% 70,18
Plataforma teknologikoak modernizatzea, digitalizatzea eta berritzea	1.200.000,00	% 77,22
ZERGA	1.350.000,00	% 60,84
TRAMITATZAILEA	255.282,00	% 85,31
BIG DATA	66.886,00	% 44,10
SII + SILICIE	400.000,00	% 53,51
TICKETBAI	800.000,00	% 74,33
Mantenu lanak eta aldizkako harpidetzak berritzea	370.927,00	% 10
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.052.005,00</b>	<b>% 65</b>

Gertubide. Definituta utzi da zeintzuk izan behar duten, Departamentuaren ustez, iradokizun, kexa eta kontsulten aplikazio berriak (Gertubide izenekoak) izan behar dituen funtzionalitateak tresna hobetzeko eta herritarrentzat erabilgarriagoa izateko. Aplikazioari buruzko hainbat bilera egin dira. Berrikuntzakoekin harremanetan izan gara aplikazio berriaren garapenen jarraipena egiteko, eta barruan departamentuaren beharrak txertatzeko.

Sinatzeke. Sinatzeke aplikazioaren jarraipen eredu bat prestatu da, Microsoft 365eko lantaldea barne hartzen duena IZFEko eta Berrikuntzako langileekin, gorabeherak eta aldaketak haiekin partekatze eta lehentasunak eta epeak ezartzeko. Asmoa da sistema hori ia ezezagunak diren aplikazio korporatiboetara ere zabaltzea. Aplikazioa administrazio prozeduraren legeriara egokitzearen, haren barruan bereizi dira, alde batetik, eskumenen eta sinaduraren eskuordetzeak eta, bestetik, absentziagatik edo lanpostu hutsagatik egin beharreko ordezenak.

Ordezkarien erroldak. Jarduerarik gabeko ordezkariak arazteko kanpaina bat egin da (ebazpenak prest daude eta jakinarazpena egitea falta da). 2023an kanpaina zabalagoak egingo dira, ordezkartzaren aplikazioan eta tramitatzailarenean zenbait doikuntza egin ondoren. Prozedura Berezien Zerbitzuarekin batera prozesu bat ere garatzen ari da likidatutako sozietateak eta haien ordezkariak kontrolatzeko.

One Identity. Aplikazioa produkzioan txertatuta dago, baina funtzionalitate guztiak aktibatu gabe. Sarbiden aldatu da inkorporazio berriei baimenak emateko modua. Lanpostu homogeneousetan profil komunak definitzen saiatzen ari gara. Lan hau departamentu osoan egin beharko da, lanpostu adina profil egotea saihesteko.

EDGE nabigatzailea lehenetsia. EDGE nabigatzailea postu guztietan gaitu da, Explorer nabigatzailearen orde. Azken horrek ez du dagoeneko euskaririk Microsoften, eta horrek segurtasun arazo larriak sortzen ditu.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Gizartearen interesak departamentuak kudeatzen dituen politiketan biltzea.



% 50,00



% 50,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>88.951,40</b>	<b>88.951,40</b>	<b>40.110,75</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Interes taldeekiko harremanen garapena	88.951,40	88.951,40	40.110,75		100,00

### 2. Jarduketa ildo:

Antolaketa malguan eta zeharkakoan oinarritutako lan eredian aurrera egitea.



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>124.570,80</b>	<b>124.570,80</b>	<b>82.656,93</b>		
<b>2.1 Ekintza</b>					
Proiektua partekatzea antolakundeko kolaboratzaile eta langileekin	37.951,40	37.951,40	38.967,49		100,00
<b>2.2 Ekintza</b>					
Informazio eta lankidetzaren baliabideen inplementazioa, partaidetzaren bultzatuta	86.619,40	86.619,40	43.689,44		100,00

### 3. Jarduketa ildo:

Informazio sistema integratuak garatzea, zerga betebeharren konplimentua, iruzurraren aurkako lana eta kudeaketa finantzario eraginkorra errazteko. Administrazio elektronikoa. Plan informatikoa.



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>6.816.829,80</b>	<b>4.516.794,80</b>	<b>3.322.775,41</b>		
<b>3.1 Ekintza</b>					
Negozio-aplikazioen mantentzea eta bilakaera	6.816.829,80	4.516.794,80	3.322.775,41		100,00

### Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	3.300.000,00	3.300.000,00	1.925.050,00
<b>3.1 Ekintza</b>			
Negozio-aplikazioen mantentzea eta bilakaera	3.300.000,00	3.300.000,00	1.925.050,00


#### Departamentuaren jarduketa operatiboa

**Urteko helburua:** Laguntza teknikoa ematea departamentuko unitateak behar bezala molda daitezen

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Izapidetutako espedienteen artean, epean ebatzitakoen ehunekoa	Ehunekoa	98,70	97,00	99,00	100,00
Mantentzearen gastu arrunta, metro koadro bizigarri bakoitzeko	Euroak	115,00	150,00	130,00	140,00


#### Joera

Izapidetutako espedienteen artean, epean ebatzitakoen ehunekoa - Ehunekoa





Mantentzearen gastu arrunta, metro koadro bizigarri bakoitzeko – Euroak



## Memoria

### L.1 - Langileak

Langileak ordeztu eta lanpostuak bete:

2022. urtean zehar 323 langile mugimendu izan dira guztira.

Lanpostu zerrendaren aldaketak:

2022an, LPZren 7 aldaketa onartu ditu Diputatuen Kontseiluak. LPZren 7 aldaketa horietan, 8 lanpostu amortizatu dira, 6 lanpostu berri sortu eta lanpostu 1 aldatu da.

Jarraian azaltzen da nolako ekintzetan ere lagundu zaion departamentuari plantillen kudeaketarekin eta funtzio publikoarekin lotutako gaietan:

- Sinadura elektronikoak (Giltza Profesionalaren ziurtagiria abian jarri zenetik, zerbitziburuentzat baino ez da mantentzen ziurtagiria): 11 sinadura berri dira eta 55 sinadura errebotatu.
- Ziurtagiri profesionalak hodeian: 2022an mota horretako 91 ziurtagiri eman dira Ogasun eta Finantza Departamentuan.
- Harrera ekitaldiak: 6 harrera ekitaldi egin dira guztira, eta 36 parte-hartzaile eman zaie harrera.
- Erretiroak: 16 langile hartu dute erretiroa.
- Ezintasun iraunkor absolutuagatik kargu-uzte bat egon da, lanpostuak amortizatu edo betetzeagatik 5 kargu-uzte, eta aldi baterako programa amaitzeagatik 3 kargu-uzte. Uko egiteak 15 izan dira.

### L.2 - Bulegoak

Jarraian, 2022. urtean egindako lanak deskribatzen dira:

- Zergadunei babesa eta pribatutasuna emateko itxiturak ordezkatzeko lanak egin dira herritarren arretarako bulego guztietan eta errenta mekanizatuko bulegoetan.
- Beasain, Hernani, Erreterria, Donostiako Antso Jakitun, Azpeitia, Bergara eta Irungo bulegoetan argiztapen ekipoak aldatu eta ekipo eraginkorragoak jarri dira haien ordean.
- Herritarren arretarako eta errenta mekanizatuko bulego guztietan ilarak kudeatzeko pantaila orokorrak instalatzeko lanak egin dira.
- Bulegoak prestatu dira Errenta Mekanizatuaren kanpainarako.
- Departamentuaren telefonia sistema VoIP teknologiarara migratu da.
- Errotaburuko 1. eta 10. solairuetan lanpostuak egokitzeko lanak egin dira zerbitzuak berrantolatzeke.
- BEZ/TicketBAiko 15 teknikari berrien lanpostuak instalatzeko lanak egin dira.
- Egokitzapen lanak egin dira Errotaburu, Okendo, Irun, Azpeitia, Bergara eta Tolosako bulegoetan erregistro postu berriak gaitzeko.

## Memoria

- Errotaburu 2ko 1., 3. eta 9. solairuetan soinu mailaren eta erreberberazio denboren neurketak egin dira, horien modelizazioa egiteko.
- Errotaburu 2ko sotoetako eskaileretan ordeztu egin dira sute kasuetarako dauden gainpresioko haizagailuak.
- Binilo zeharrargia instalatu da Errotaburu 2ko behe solairuaren perimetro beiraztatu osoan, datuen segurtasuna hobetzeko.
- Errotaburu 2ko sotoetako klimatizazio makinaren kontrolagailu zaharrak (N2 protokoloak) kendu dira eta haien ordez BacNet protokoloak instalatu dira.
- Errotaburu 2ko 7. solairuan hasierako egokitzapen lanak egin dira erabilera anitzeko hiru areto sortzeko.
- Errotaburu 2ko datu sareko switch guztiak ordeztu dira, IZFErekin lankidetzan.
- Azterlan bat egin da Errotaburu 2ko solairuarean eta 1., 3. eta 9. solairuetan erreberberazio denborak hobetzea helburu duen modelizazio eta proposamenerako.
- Telekudeaketako kontrolagailuak ordeztu dira Errotaburu 2ko 8., 7. eta 3. solairuetan eta 2., 3. eta 4. sotoetan.
- iButton teknologiko sarrailak eta irakurgailuak kendu dira eta haien ordez Mifare teknologikoak jarri dira Ogasun eta Finantza Departamentuaren bulego guztietan.
- Dokumentazioa garraiatzeko baliza berriak fabrikatu dira, Mifare motako sarrailak hornituak, eta dokumentazioa suntsitzeko kuxkak teknologia horretara egokitu dira.
- Garajeetan, ibilgailuen joan-etorrirako eremuak margotu dira 2. eta 3 sotoetara jaisteko arrapaletan.
- Garajeetara sartzeko arrapaletan argiteria aldatu da.
- Errotaburuko 2ko 7. solairuan erabilera anitzeko 3 bilera gela prestatzeko lanak egin dira.

### L.3 - Aurrekontua

Aurreikusita zegoen urteko kontratazio plana bete da:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Datuen eta Agirien Tratamendu Zerbitzuaren kontratua formalizatu da (H22001 espedientea)
- 2.- TicketBALren publizitate kanpainako baliabideak kudeatzeko kontratua formalizatu da (H22002 espedientea).
- 3.- TicketBALren Publizitate Kanpainaren edukiak sortu eta ekoizteko zerbitzuaren kontratua formalizatu da (H22003 espedientea).
- 4.- Sarbideak kontrolatzeko elementuen hornidura kontratua formalizatu da (H22004 espedientea).
- 5.- BADALAB Partzuergoaren Auditoria Zerbitzuaren espedientea onartu da (H23001 espedientea), tramitazio aurreratukoa, eta 1. artxiboa ireki da.
- 6.- IZFEren urte anitzeko mandatuen 13 aldaketa onartu dira, haiek berriro periodifikatzeko, eta urteko 8 mandatu berri onartu dira.
- 7.- Adjudikatu dira 43 kontratu txiki eta SPKLren 9. xedapen gehigarriari jarraituz araututako beste 3.

### L.4 - Espedienteen tramitazioa

Departamentuari dagozkion xedapenak eta espedienteak garaiz tramititzen eta bultzatzen ari dira.

Espediente mota desberdinetatik etorritako datu metatuak:

1. 612 foru agindu, zuzendaritzen 1432 ebazpen, Idazkaritza Teknikoaren 112 ebazpen eta Diputatuen Kontseiluaren 176 erabaki onartu eta izapidetu dira.
  2. 2022an, zehapenak barkatzeko 305 eskaera ebatzi dira, eta 108 espediente izapidetzen ari dira, 2022ko abenduaren 31n izapidetu zain zeudenak. Ekitaldi honetan zerga iruzurreko 160 salaketa aurkeztu dira.
  3. Ondare erantzukizunaren espedienteak. Urteko lehen seihilekoan zehar, errekurtsogileen aldeko bi epai eman ziren (epai bat bi espedienteri dagokie), kreditu aldaketa baten bitartez beharrezko finantzaketa onartu zen, eta, epaiak exekutatu, zenbatekoak ordaindu ziren hiru administrazio egintza direla medio: foru agindu bat eta Diputatuen Kontseiluaren bi erabaki.
- Azaroan jakitun izan gara GFaren aurkako bi epai eman direla, kasazioan errekurrituko direnak.
4. Hirugarren peritua izendatzeko 2021-2 espedientea amaitu da, eta zergadunak hornitutako funtsaren bitartez hari ordaintzea onartu da.

### L-5 - Zerbitzu orokorrak

Erregistro eta artxiboa, biltegia, erreprografia, liburutegia, datu bilketa eta itzulpen zerbitzuak puntualki erantzuten ari dira.

## Memoria

### L.6 - Administrazio elektronikoko sistemak

1. ekintza. Departamenturako garatu eta mantentzea identifikazio eta ordezkari-tza sistemak eta komunikazio eta jakinarazpen elektronikoa, espediente elektronikoa eta artxibo elektronikoa.

Ordezkaritza. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga ordezkarien errolda arautzen duen azaroaren 15eko 614/2021 Foru Aginduan jasotako funtzionalitateak erabat operatibo daude. Helburua izan da telematikoki egin daitezkeen prozedurak zabaltzea, eskaeraren kudeaketa eta balioztapena osorik online egin ahal izateko. Arreta bulegoetara urtean 1.400 pertsona inguru gutxiago etortzea espero da:

- Ordezkatuaren borondatea beste pertsona batek (hirugarrenak) balioztatu behar duenean, Gipuzkoataritik balioztatu dezake hirugarrenak.
- Ordezkatuaren borondatea triangulazio sistemaren bidez balioztatzeko, ordezkatuak sinatutako 001-P dokumentu digitalizatua erantsi behar du ordezkariak, ez du herritarren arretarako bulegoetan aurkeztu behar, orain arte bezala.
- Triangulazio sistema erabiltzeko aukera ireki da ordezkatuaren borondatea hirugarren pertsona batek balioztatu behar duenean, betiere Gipuzkoataria bidez eskaera erantsita.

Gainera, aldatu egin dira departamentuak ordezkari-tza izapidetzean ordezkari-tzako pertsonari bidaltzen dizkien e-postako mezuak. Asmoa izan da testuak argiagoak izatea eta, horrela, errazago jakitea zer urrats geratzen diren egin gabe ordezkari-tzari alta emateko.

Prozedura berezien zerbitzuarekin batera, prozedura bat diseinatu da ordezkari-tza konkurtsalei zerga ordezkari-en erroldan baja eta alta emateko.

Jakinarazpena. Hainbat hobekuntza egin dira jakinarazpen eta komunikazioen Jakinarazi aplikazioan:

- Atzerrian bizi diren pertsonari zuzendutako jakinarazpenetan hobekuntzak sartu dira jakinarazpen elektronikoa eskura jarri ahal izateko (bai hartzaileari bai haren ordezkariari, baldin eta jakinarazpenetara sartzeko edukia badu).
- Desegindako enpresei edo hildako pertsona fisikoei zuzendutako jakinarazpenen kasuan, abisu sistema bat diseinatu du, haien hartzaileak aldatzeko.
- Bilerak egin dira emaitzarik gabeko jakinarazpenen arazoa konpontzeko eta hartzaileek eta haien ordezkari-ek (jakinarazpenak eskuratzeko edukia badute) Gipuzkoataritik haietara sartzeko aukera izan dezaten. Aldatu beharreko alderdiak eta arduradunak definitu dira.
- Estatistika berriak diseinatu ari dira jakinarazpenei eta behartutako kolektiboari buruz, departamentuaren politiken eragina baloratzeko ulergarriak.

Gipuzkoataria. Kendu da Gipuzkoatariaren gako operatiboarekin sartzeko aukera, eta pantaila nagusia birdiseinatzeko eskatu da, onartutako identifikazio eta sinadura aukerak argiago gelditu daitezkeen.

Lanean ari dira Gipuzkoatariaren diseinu berriari, Ogasun Departamentuari dagokionez. Modernizazioaren oniritzia lortutakoan, Ogasun eta Finantza Departamentuaren ataria diseinatzeko lanei ekingo zaie.

Dokumentuen artxiboa. 2021eko errenta aitortpenaren dokumentazioa eskaneatzeko sistema bat diseinatu da. Asmoa da jaso beharreko dokumentazio bolumena erdira murriztea eta hura jaso ahal modu bermatua digitalizatzea. Horrekin saihesten dugu dokumentazio artxibatu beharra, eta eskura jartzen da automatikoki dokumentuen biltegian, behar den kasuetan berrikusi ahal izateko.

Kontabilitate dokumentazioa GEW aplikazioaren bidez jasotzea. Kontu-hartzaile-tzako eta Kontabilitateko zerbitzuekin bilerak egin dira, kontabilitate arloko dokumentazioa GEW aplikazioaren bidez jasotzeko prozedura diseinatzeko. Barruko zirkular bat prestatu eta beste departamentuetara zabaltzeko asmoa badago ere, aurrenik beharrezkoa da zenbait funtzionalitate garatzea aplikazioan.

IZFERen paperezko zerrendak. Informazioa biltzen ari da jakiteko IZFERtik zenbat zerrenda iristen diren paperean gure departamentura. Urtean 350.000 folio inguru jasotzen direla kalkulatu da. Zerrenda batzuk oso zaharrak dira eta erabilgarritasun eskasa dute. Urtean zehar nabarmen murriztuko dira paperean jasotzen diren zerrendak. Bi urtean, gutxi gorabehera, paperezko zerrenden ordezkari-tza telematikoa erabiliko dira. Datuak lortuko dira jakiteko zenbateko paper kontsumitzen den departamentuan eta zenbat dokumentazio jasotzen den formatu horretan, eta datu horiek baliagarriak izango dira egin nahi diren prozeduretan aldaketek duten eragina neurtzeko.

## Memoria

Harremanak Justizia Administrazioarekin. Administrazio elektronikoari begira hainbat urrats egin dira, bi eremutan:

1. Enbargo judizialak. 2022an abian jarri da Justizia Administrazioak agindutako enbargoen izapidetze elektronikoa. Horrek berekin ekarri du enbargatutako zenbatekoek gora egitea esponentzialki, baita sistema automatizatzea ere hasieran hainbat arazo izan eta gero.
2. AVANTIUS sistema. Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioak AVANTIUS sistemaren erabilera inposatu die gainerako herri administrazioei. Horrek esan nahi du EAEko justizia administrazioarekiko harremanetan paperaren erabilera alde batera utzi beharra dagoela. Prozesu bat diseinatu dugu informazioa banatu eta epaitegietara bidaltzeko, bai eta administrazio espediente osoak igortzeko ere, horiek judizializatzen direnean. Sistema martxan dago gaur egun, soluzio informatikoak ezartzean sortzen diren ohiko arazoekin.

EDGE nabigatzaile lehenetsia. EDGE nabigatzailea postu guztietan gaitu da, Explorer nabigatzailearen orde. Azken horrek ez du dagoeneko euskarririk Microsoften, eta horrek segurtasun arazo larriak sortzen ditu.


2. ekintza. Kanpainak egitea behartutako kolektiboak bitarteko telematikoetara egokitzea errazteko.

Kanpaina bat egin da, zentsu aitortzean helbide elektronikorik adierazi ez duten zerga kudeaketako profesionalak hura sartu dezaten. Kanpainaren ondorioz, altan dauden profesional guztiek helbide elektroniko bat dute PCONen.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Administrazio elektronikoaren sistemak ezartzea



% 100,00

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>1.475.350,56</b>	<b>1.475.350,56</b>	<b>1.555.522,31</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Honako hauen garapena eta mantenimendua: identifikazio eta ordezkari sistema, komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak, espediente elektronikoa eta departamenturako artxibo elektronikoa.	1.398.878,50	1.398.878,50	1.477.002,81		100,00
<b>1.2 Ekintza</b>					
Harreman telematikoen zabalpena pertsona juridiko eta nortasun juridikorik gabeko entitate guztien artean	76.472,06	76.472,06	78.519,50		100,00

### 2. Jarduketa ildoak:

Departamentuko langileria politika inplementatzea



% 40,00



% 60,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>244.441,36</b>	<b>244.441,36</b>	<b>250.987,48</b>		
<b>2.1 Ekintza</b>					
Departamentuari esleitutako helburuetara hobekien egokitzen den funtzio publikoko eredia aztertzea eta eskumeneko departamentuari proposatzea.	75.902,80	75.902,80	77.934,99		100,00
<b>2.2 Ekintza</b>					
Lanpostu Zerrendaren, plantillen, lanorduen kontrolaren eta ordezkapenen kudeaketa, eta departamentuko unitateentzako langileria arloko laguntza	98.673,64	98.673,64	101.315,49		100,00
<b>2.3 Ekintza</b>					
Departamentuko prestakuntzako berariazko planaren bultzada eta garapena	69.864,92	69.864,92	71.737,00		100,00

### 3. Jarduketa ildoak:

Lokalak eta instalazioak konpondu, artatu eta mantentzea



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>2.921.288,27</b>	<b>2.921.288,27</b>	<b>2.579.803,52</b>		
<b>3.1 Ekintza</b>					
Lokal eta instalazioak mantentzeko zerbitzuak ematea	1.482.506,97	1.482.506,97	1.311.709,44		100,00
<b>3.2 Ekintza</b>					
Kanpora ateratako zerbitzuen efizientziaren kontrola (segurtasuna, garbiketa)	1.362.878,50	1.362.878,50	1.190.159,09		100,00
<b>3.3 Ekintza</b>					
Bulegoak Egokitzeke Plana lantzea eta ezartzea.	75.902,80	75.902,80	77.934,99		100,00

### 4. Jarduketa ildoak:

Aurrekontua kudeatzea



% 100,00

#### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>171.781,30</b>	<b>171.781,30</b>	<b>177.005,00</b>		
<b>4.1 Ekintza</b>					
Kontratazio espedienteen tramitazioa eta kontrola	75.902,80	75.902,80	77.934,99		100,00
<b>4.2 Ekintza</b>					
kontabilitate tramitazioa eta exekuzio kontrola	95.878,50	95.878,50	99.070,01		100,00

#### 5. Jarduketa ildoak:

Espedienteak tramitatzeko efikazia eta efizientzia hobetzea



% 100,00

#### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>230.911,31</b>	<b>230.911,31</b>	<b>228.931,99</b>		
<b>5.1 Ekintza</b>					
zerga isunen barkatze espedienteak tramitatzea	77.532,81	77.532,81	79.607,12		100,00
<b>5.2 Ekintza</b>					
Departamentuko xedapenen eta esleitutako espedienteen tramitazioa eta bultzada	153.378,50	153.378,50	149.324,87		100,00

#### 6. Jarduketa ildoak:

Genero ikuspegia departamentuen plan estrategiko guztietan sartzeko saioa orokortzea



% 100,00

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>739.535,20</b>	<b>739.535,20</b>	<b>741.069,58</b>		
<b>6.1 Ekintza</b> Sarrera-irteerak erregistratu eta agiriak artxibatzeko zerbitzuak	344.021,20	344.021,20	344.748,88		100,00
<b>6.2 Ekintza</b> Biltegi, kopia eta liburutegi zerbitzuak	319.611,20	319.611,20	318.385,71		100,00
<b>6.3 Ekintza</b> Itzulpen zerbitzuak	75.902,80	75.902,80	77.934,99		100,00

## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Zerbitzu Orokorretako programan jasota daude Zuzendaritzak bultzatzen dituen departamentuaren helburu eta ekintza orokorrak, bai eta Idazkaritza Teknikoari dagozkion laguntza eta koordinazio helburu eta ekintzak ere. Hizkuntza berdintasuneko helburuei dagokienez, Zuzendaritzari dagokio euskara zerbitzu eta lan hizkuntza moduan erabiltzen dela sustatzea. Bestetik, Idazkaritza Teknikoari dagokio hizkuntza berdintasuneko urteko planari jarraipena egitea eta jarduketa jakin batzuk gauzatzea.

**Kuantifikazioa:** 348.893,16 ( % 4,41 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	( % 8,33 )	Neurria: Bidaltzea komunikazioen % 100 zergadunek hautatutako hizkuntzan. Tresna: Komunikazio idatzien eta elektronikoen bidalketaren azterketa eta planifikazioa. Egiaztagarria: Inplikaturako zerbitzuek jarraipena eginez.	100,00
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	( % 8,33 )	Neurria: % 100ean bermatzea zergadunen hizkuntza hautua Errotaburu 2ko sarrerako zaindarien zerbitzuan. Tresna: Enpresa emakida hartzaileari jakinaraztea eta esaldi erabilienean bilduma. Egiaztagarria: Idazkaritza Teknikoak jarraipena eginez.	100,00
3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	( % 8,33 )	Neurria: Lortzea zerbitzuek Agiritegiari egindako espediente eskaeren % 25 euskaraz egiten dela. Tresna: Neurria Agiritegiko eta departamentuko langileei jakinaraztea. Egiaztagarria: Unitateak jarraipena eginez.	100,00
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	( % 25,00 )	3.3.2. Erakundearen barruko telefonozko harremanak	100,00
		Neurria: Elkarrizketen % 50 euskaraz izatea ataleko langileek departamentuko zerbitzuekin eta Langileria Zerbitzuarekin telefonoz dituzten hizketaldietan. Tresna: Neurria langileei proposatzea. Egiaztatzeko modua: Zerbitzu Teknikoek jarraipena eginez	100,00
		Neurria: Lortzea KPEko bilera informatiboen % 75 euskaraz izatea, partaideek ulermen nahikoa dutenean. Tresna: Bileren hizkuntza protokoloa aplikatuz. Egiaztagarria: Deitzaileek bilerei jarraipena eginez.	100,00
		Neurria: Lortzea talde dinamiketan bileren % 50 euskaraz izatea, partaideek ulermen nahikoa dutenean. Tresna: Bileren hizkuntza protokoloa aplikatuz. Egiaztagarria: Deitzaileek bilerei jarraipena eginez.	100,00








Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
3.4. Baliabide informatikoak	( % 25,00 )	Neurria: Lortzea langileen % 50ek aplikazio informatikoaren euskarazko bertsioa erabiltzen duela. Tresna: neurria langileei jakinaraztea. Egiaztagarria: Zerbitzuak jarraipena eginez.	100,00
		Neurria: Lortzea sistema horiek kudeatzen dituzten langileen % 25ek euskarazko bertsioa erabiltzea dena delako aplikazio informatikoetan. Tresna: Neurria inplikaturako langileei jakinaraztea. Egiaztagarria: Inplikaturako langileei galdetuz.	100,00
		Neurria: IZFERi eskatzea aplikazio berriak aurkeztean hizkuntza ikuspuntua aplikatu dezala. Tresna: Zuzendaritzak IZFERi bidali beharreko komunikazioaren prestaketa. Egiaztagarria: Urte amaieran IZFERi eskatuz aurkezpenen hizkuntzaren datua.	100,00
4.2 Laneko prestakuntza	( % 8,33 )	Neurria: Mantentzea barne prestakuntzako euskarazko orduen kopurua ordu guztien % 30etik % 50era bitartean. Tresna: Prestakuntzaren planifikazioa. Egiaztagarria: Prestakuntzako hizkuntza adierazleen inguruko sei hilabeteetako eta urteko datuak lortuz	100,00
5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	( % 8,33 )	Lortzea % 60ra iristea departamentuarekin euskaraz harremana duten udal sektore publikoko entitateak. Tresna: Komunikazioa prestatzea eta Zuzendaritzak haiei bidaltzea. Egiaztagarria: Entitateen erantzuna sisteman sartuz.	100,00
6.1. Estrategia: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	( % 8,33 )	Neurria: Lortzea % 25 murriztea zerbitzuek egiten dituzten testu laburren itzulpen eskaerak. Tresna: Dena delako zerbitzuei proposatzea beraiek testu laburren sorkuntza elebiduna kudeatzea. Egiaztagarria: Itzultzaileek jarraipena eginez.	100,00

GJH

**Kuantifikazioa:** 10.903.912,97 ( % 137,96 )

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<b>8-LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA</b> Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu vetea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.	<b>100.394,99</b>	
<b>Helburura</b>	8.X3 - GFAko langileak gobernantza onaren printzipioen arabera kudeatzea	100.394,99	
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Departamentuko langileria politika inplementatzea	100.394,99	
	<b>16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b> Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>8.858.412,60</b>	<b>1.925.050,00</b>
<b>Helburura</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	8.837.748,37	1.925.050,00
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Departamentuko langileria politika inplementatzea	150.592,49	
	Lokalak eta instalazioak konpondu, artatu eta mantentzea	2.579.803,52	
	Aurrekontua kudeatzea	177.005,00	
	Espedienteak tramitzatzeko efikazia eta efizientzia hobetzea	228.931,99	
	Genero ikuspegia departamentuen plan estrategiko guztietan sartzeko saioa orokortzea	741.069,58	
	Administrazio elektronikoaren sistemak ezartzea	1.555.522,31	
	Gizartearen interesak departamentuak kudeatzen dituen politiketan biltzea.	20.055,38	
	Antolaketa malguan eta zeharkakoan oinarritutako lan ereduan aurrera egitea.	61.992,70	
	Informazio sistema integratuak garatzea, zerga betebeharren konplimendua, iruzurraren aurkako lana eta kudeaketa finantzario efizientea errazteko. Administrazio elektronikoa. Plan informatikoa.	3.322.775,41	1.925.050,00
<b>Helburura</b>	16.07 - Premiei erantzungo dieten erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta adierazgarriak maila guztietan hartzen direla bermatzea.	20.664,23	
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Antolaketa malguan eta zeharkakoan oinarritutako lan ereduan aurrera egitea.	20.664,23	

<b>GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak</b>		<b>Ordainketa kredituak</b>	<b>Datozen urteetako gastuak</b>
 <p><b>17-HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA</b> Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.</p>	<b>20.055,38</b>		
<b>Helbubura</b>	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatua eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezela sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	20.055,38	
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Gizartearen interesak departamentuak kudeatzen dituen politiketan biltzea.	20.055,38	
<b>Guztira</b>		<b>8.978.862,97</b>	<b>1.925.050,00</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Baimendua Autorizado</b>	<b>Xedatua Dispuesto</b>	<b>Gauzatzea Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.937.980,00	1.937.980,00	1.981.383,72	1.981.383,72	1.981.383,72	102,24
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	4.068.931,00	4.068.931,00	4.055.273,62	3.809.701,44	3.748.384,11	92,12
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>6.006.911,00</b>	<b>6.006.911,00</b>	<b>6.036.657,34</b>	<b>5.791.085,16</b>	<b>5.729.767,83</b>	<b>95,39</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	6.806.749,00	4.506.714,00	4.396.884,15	4.396.884,15	3.249.095,24	72,09
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>6.806.749,00</b>	<b>4.506.714,00</b>	<b>4.396.884,15</b>	<b>4.396.884,15</b>	<b>3.249.095,24</b>	<b>72,09</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>12.813.660,00</b>	<b>10.513.625,00</b>	<b>10.433.541,49</b>	<b>10.187.969,31</b>	<b>8.978.863,07</b>	<b>85,40</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales</b>	<b>Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos</b>	<b>Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados</b>	<b>Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	3.300.000,00	3.300.000,00	1.925.050,00	1.925.050,00	58,33
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>3.300.000,00</b>	<b>3.300.000,00</b>	<b>1.925.050,00</b>	<b>1.925.050,00</b>	<b>58,33</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>					
<b>Guztira / Total</b>	<b>3.300.000,00</b>	<b>3.300.000,00</b>	<b>1.925.050,00</b>	<b>1.925.050,00</b>	<b>58,33</b>



**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	194.837,46	1.786.546,16		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	328.529,54	3.419.854,57		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>523.367,00</b>	<b>5.206.400,73</b>		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	2.922.176,09	326.919,15	1.925.050,00	
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>2.922.176,09</b>	<b>326.919,15</b>	<b>1.925.050,00</b>	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>3.445.543,09</b>	<b>5.533.319,88</b>	<b>1.925.050,00</b>	
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>32,77</b>	<b>52,63</b>	<b>58,33</b>	



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Gauzatze Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>	<b>Gastuari lotutakoak Afectados a gasto</b>
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	164.169,00	164.169,00	377.477,05	229,93	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES					
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>164.169,00</b>	<b>164.169,00</b>	<b>377.477,05</b>	<b>229,93</b>	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>					
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>					
<b>Guztira / Total</b>	<b>164.169,00</b>	<b>164.169,00</b>	<b>377.477,05</b>	<b>229,93</b>	

## Programaren datu orokorrak

**Departamentua:** 06 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA  
**Atala:** 0610 - Ogasun Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 100 - Zerga Administrazioa  
**Funtzionala:** 932 - Zerga sistemaren kudeaketa

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Kudeatzea pertsonen kontribuzioak, horretarako haien diru ahalmenera egokituta, herri zerbitzuak mantentzeko nahikoak izan daitezkeen baliabideak sortze aldera.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Diru sarrera gehien ordainketa borondatez egiten da. Borondatezko ordainketa errazteko, departamentuak kalitatezko zerbitzuak ematen ditu, nahiz eta hobekuntzak egin daitezkeen. Dena den, Gipuzkoan bada pertsegitzekoa den iruzurraren ehuneko jakin bat.

### Beharraren eboluzioa:

Zerga-betebeharrak borondatez betetzeko erraztasun berriak proposatzea eta ezartzea. Zerga iruzurraren aurka borrokatzea, eta zergadunen borondatezko betetze maila hobetzea.

### Nori zuzendua:

Gipuzkoan bizi edo jarduten diren pertsonak eta entitateak.  
Beste esku hartzaile batzuk: entitate laguntzaileak.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Giza baliabideak. Diru baliabideak. Informatika baliabideak. Birkontratazioak.

### 2. Garatu beharreko

Zerga obligazioen betetzea errazten duten zerbitzuak, eta obligazio horien betetzea kontrolatzeko jarduketak, betiere bitarteko informatiko modernoak erabilia.  
Aholkularitza zerbitzuak. Zerbitzu telematikoak. Kanpainako zerbitzuak.  
Urteko egiaztapen planaren prestaketa eta ezarpena.  
Foru ogasunen baterako jarduketa  
Informazio trukea  
Datuen kudeaketa

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Egiaztapen Plana.  
Foru Ogasunen Plan Bateratua.  
Informazioa trukatzeko hitzarmenak.  
Obligazioak betetzea errazten duten tresna telematikoak.

### Programaren arau esparrua:

Aurrekontu-egonkortasunari dagokionez, maila finkatuan, ekitaldiaren itxiera aurkeztu da 66,9 milioi euroko superabitarekin. Kontabilitate nazionalari dagokionez, Foru Aldundiari atxikitako erakundeen kopurua 26koa da, Aldundia bera barne.

Hain zuzen ere, eta giza baliabideei dagokienez, programa honek nabarmen egin behar dio aurre belaunaldi-erreleboaren erronkari, langileen %74 berrogeita hamar urtetik gorakoa baita.

Era berean, lana antolatzeko modu berriei eta prozeduren digitalizazioari dagokienez, koronabirusaren krisiarekin, haren beharra bizkortu eta ezarri egin da, eta eraldaketa digitala da datozen urteetarako irtenbide eta erronka handiena.

Emaitzetara Bideratutako Aurrekontua (EBA) ezartzeari dagokionez, departamentuekin landutako entzute-prozesuaren ondoren eta aurrekontua kudeaketa-planetara egoki daitezen zer behar dituzten jakiteko, EBaren aplikazioak landu dira. Batez ere, ekitaldian aurrekontuaren jarraipena egiteko aplikazioak.

Gauza bera gertatzen da zeharkako politikak programa horien helburuetan eraginkortasunez integratzearekin.

Alde horretatik, programa honetan aurrekontu-programen kudeatzaileekin lan egiten da, horiek genero-ikuspegia txerta dezaten, arreta berezia eskainiz desberdintasunak identifikatzeari eta, zer nolako helburu, ekintza eta baliabide erabiltzen dira desberdintasunak desagertarazteko.

Hizkuntza berdintasunari dagokionez, programak Ogasun eta Finantza Departamentuan euskararen erabilera kudeatzeko planaren irizpideak aplikatu behar ditu, eta ahozko erabilera eta prestakuntza areagotu behar ditu. Ondorioz, programak 16. GJHari (Bakea, Justizia eta Erakunde sendoak) erantzuten dio.

### Beharraren eboluzioa:

Beraz, kaudimen finantzarioko egoera batetik abiatuta, eta ziurgabetasun handiko faktoreak daudela eta neurri fiskalak berraktibatu behar direla kontuan hartuta, egoera estu batean gaude, eta gainbegiratzeko eta kontrolatzeko premia zorrotzak ditugu.

Gure aurrekontuetan defizita sartzea desoreka izan daiteke etorkizunean; horregatik, beharrezkoa da defizita kontrolatzea foru sektore publikoaren eta atxikitako gainerako entitateen hurrengo ekitaldietan. Aurrekontuen egonkortasunari buruzko prestakuntza eman behar zaie GFaren atxikitako erakundeetan dituzten ordezkariak eta haren finantza-kudeaketaren arduradunak. Gainera, beharrezkoa da erakunde horiekiko harremanetan erabiltzen diren tresnak gero eta informazio gehiago emateko betebeharrak egokitzea eta eskura dagoen informazio ekonomiko-finantzarioa hobetzea.

EBA jarduera publikoa planifikatzeko eta kudeatzeko tresna erreala bihurtzea, aurrekontu-programen arduradunekin batera lan eginez eta prozesu horretan genero-ikuspegia txertatuz, gastu-politika bakoitzean emakumeen eta gizonen beharrezkoak identifikatuz, arrakalak detektatuz eta horien aurrean ekintza zehatzak eginez.

Belaunaldi-errebua dela eta, ezagutza transferitzeko mekanismoak lantzea.

**Nori zuzendua:**

Foru sektore publikoa eta atxikitako entitateak, Batzar Nagusiak eta kontu auzitegiak.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Pertsonalak, finantzarioak, informatikoak.

**2. Garatu beharreko**

Aurrekontu, kontabilitate, finantza, kontu-hartzailtza eta auditoretza arloko kudeaketa.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Emaitzetara bideratutako aurrekontua. Kontuen berri ematea. Epe barruko ordainketak. Foru sektore publikoaren jardunaren kontrola eta fiskalizazioa.

**Programaren arau esparrua:**

4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearena. Irailaren 29ko 10/2020 Foru Dekretua, departamentuen egiturari buruzkoa. Herri kontabilitate planaren foru dekretua. Herri administrazioaren araudi orokorra.2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.

**2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**

**Urteko helburua:** Foru sektore publikoan, aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasuna lortzea legealdiaren amaieran.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
KSE betetzea=Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak	Bai/Ez	Bai	Bai	Bai	Bai

**Memoria**

Aurrekontu politikaren kudeaketa, egonkortasun terminoetan jarduketa ildoak % 97,85 aurrerapen-maila du, eta % 99,29ko aurrekontu-gauzatzea.

Jarduerak lau multzotan sailka ditzakegu:

1. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren Bulego Birtualari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independenteari informazioa igortzea.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak (OHAM) hainbat informazio eskatu du, toki-erakundeek prestatu eta bidali behar dutena urriaren 1eko HAP/2105/2012 Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera. Agindu horren bidez, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzen dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako entitateak honako hauek dira

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Uliazpi Fundazioa  
Kabia  
Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte (IZFE) SA  
Etorlur SA  
Kirologi Fundazioa  
Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa  
ZIUR Fundazioa

## Memoria

Fundación Adinberri Fundazioa  
Mubil Fundazioa  
Gipuzkoako Ur Kontsortzioa  
Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa  
GHK SA  
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzza  
Berroeta Aldamar SL  
Seed Gipuzkoa Araubide Erraztuko AKS SA  
Ortizibia S.L.  
Garaia Berrikuntza Gunea SK  
Bic Gipuzkoa Berrilan SA  
Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa  
Ekain Fundazioa  
Mundubira 500: Elkano Fundazioa  
BSTK Fundazioa  
Bidegi  
Gipuzkoako Urak SA  
Sueskola Fundazioa

Denak administrazio publikoen sektorekoak dira, azken hirurak izan ezik, merkatukotzat jotzen baitira. Administrazio publikoen perimetroa osatzen duten entitateek beren aurrekontuak bateratzen dituzte.

Hona hemen ekitaldian zehar bidaltzen den informazioa:

- Ekitaldiko aurrekontua (urtekoa)
- Epe ertainerako aurrekontu-plana (urtekoa)
- Hurrengo ekitaldiko (urteko) aurrekontuaren oinarritzko ildoak
- Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (urtekoa)
- Ekitaldiko aurrekontua gauzatzeari (hiru hilean behin)
- Berankortasuna (hiru hilean behin)
- Ordaintzeko batez besteko epea (hilekoa)
- Aktibo finantzarioak (urtekoa)

Ogasun eta Finantza Departamentuak nahitaez eskatu beharreko informazioa eskatu die entitateei, eta epe barruan bidali dute.

Era berean, perimetroko informazioa EFAIra bidaltzeko egutegia bete da.

### 2. Elaborazioa, aldaketak, likidazioa eta kontuak ematea.

Aurrekontu aldaketak: Aurrekontua aldatzeko 327 espediente izapidetu dira (414,94 milioi euro), eta 119 egokitzapen tekniko (25,15 milioi euro). Erakundeen konpromisoei dagozkien aldaketak 211.491,09 mila eurokoak dira. Aurrekontu propioan, nabarmentzekoa da urtarrilean egindako kreditu-gaikuntza, Lurraldeko udalerriei 25,15 milioi euro transferituz, 684/2021 Errege Dekretuaren arabera Eusko Jaurlaritzatik jasotako funtsen zati bat banatuz.

2021eko aurrekontuaren itxiera: Urteko kontuak Diputatuen Kontseiluan aurkeztu ziren apirilaren 26an, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideak ezarritako epearen barnean. 2021eko KES emaitza 102,18 milioi euroko superabitekoa da eta doitutako aurrekontu emaitza 167,39 milioi eurokoa.

2023ko aurrekontua: Abian jarri zen 2023ko aurrekontua egiteko prozesua, maiatzaren 24ko FA-OG-2022-0307 Aginduaren bidez. Ekaineko lehen astean, prozesuaren hasierako gutuna bidali zitzaion zuzendaritzari eta programen arduradunari. Diputatuen Kontseiluari uztailaren 26an eman zitzaion lehen proposamena.

Ogasun eta Finantza Departamentuak urte anitzeko egoeraren berri eman zion Diputatuen Kontseiluari irailaren 7an, eta Kontseiluak prestatzeko jarraibideak onartu zituen irailaren 27an. Kontseiluak urriaren 31n onartu zuen proiektua, eta egun berean aurkeztu zen Batzar Nagusietan. Batzarrek behin betiko aurrekontua onartu zuten 2023rako, abenduaren 23an.

## Memoria

### 3. Kontabilitate-prozesuen digitalizazioa

Zereginen digitalizazioaren zenbait alderditan aurreikusitakoa baino mantsiago egin da aurrera, beste lehentasun eta larrialdiei erantzun beharregatik, eta dauden muga teknikoengatik. Besteak beste, Europako kontuen helbideratzea eskatu izana eta Ukrainako gerra-esparrurako laguntza-lerro berriak izatea.

Nabarmendu da enbargo judizialen izapidetze elektronikoa bultzatu dela. Era berean, zerga-itzulketen eragiketa batzuk digitalizatzeari ekin zaio, eta gainerako eragiketekin lanean jarraitu da, izapidetze elektronikoa arian-arian ezartzen jarraitzeko.

### 4. Perimetroko entitateentzako prestakuntza eta laguntza digitala.

Entitateek eta haien ordezkariak egindako informazio- eta laguntza-eskaerei erantzun zaie.

PARTAIDE aplikazioaren lehen fasearekin amaitu da. Orain, funtzionamendua probatu ahal izateko, sartu da Kontu-hartzailatza eta Auditoretza Zerbitzuak menpeko entitateei buruz duen informazioa.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Aurrekontu politikaren kudeaketa, egonkortasun terminoetan.



% 0,34



% 99,66

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>1.972.064,93</b>	<b>1.972.064,94</b>	<b>1.898.997,48</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Epe ertaineko aurrekontu plana prestatu.	10.497,69	10.497,69	10.369,80		100,00
<b>1.2 Ekintza</b>					
Aurrekontua: prestaketa, aldaketak, likidazioa.	480.644,62	480.644,62	474.788,76		100,00
<b>1.3 Ekintza</b>					
Kontabilizazioa egin eta kontuen berri eman.	779.829,03	779.829,03	770.328,12		100,00
<b>1.4 Ekintza</b>					
Kontabilitateko prozesuak digitalizatu. Hobetzea datuen segurtasuna eta egiaztapena.	432.402,25	432.402,25	378.441,10		85,00
<b>1.5 Ekintza</b>					
Egonkortasun eta finantza iraunkortasunaren arloan atxekita dauden entitate guztien jarduera ekonomiko eta finantzarioaren kontrola eta jarraipena.	212.953,44	212.953,44	210.184,91		100,00
<b>1.6 Ekintza</b>					
Atxikitutako entitateen zuzendaritza organoetako aldundiko ordezkariak egonkortasun eta iraunkortasunean trebatzea.	14.246,99	14.247,00	13.899,38		100,00
<b>1.7 Ekintza</b>					
Informatika tresnak diseinatu mendeko entitateetan dauden GFA-ko ordezkariak erabakiak hobeto hartzen laguntzeko.	41.490,91	41.490,91	40.985,41		100,00

## Konpromiso kredituak


	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>359.040,00</b>	<b>359.040,00</b>	<b>266.040,00</b>
<b>1.4 Ekintza</b>			
Kontabilitateko prozesuak digitalizatu. Hobetzea datuen segurtasuna eta egiaztapena.	359.040,00	359.040,00	266.040,00

**Urteko helburua:** Aurrera egitea emaitzetara bideratzeari dagokionez eta Aurrekontuaren zeharkakotasunari dagokionez

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Emaitzen adierazleen ehunekoa	Ehunekoa	40,00	70,00	40,40	80,00

**Joera**

Emaitzen adierazleen ehunekoa – Ehunekoa



**Memoria**

Aurrekontu programak kudeatze planetan bihurtzea jarduketa ildoak % 77,5 aurrerapen-maila du, eta %98,23ko aurrekontu-gauzatzea.

Aurrekontu-programetan genero-ikuspegia txertatzen jarraitzeko, 2022ko ekitaldian bi prozesu garatu dira:

- 2021eko ekitaldian landutako lau aurrekontu-programen azterketan sakontzea. Hari urrats berria gehitu zaio: berdintasun-ekintzei baliabide ekonomikoak nola esleitzen zaizkien aztertzea. Hauek dira lau aurrekontu-programak: Adinekoak; Funtzio Publikoa; Lurraldearekiko Konpromisoa eta Kirolak. Prozesua irailean amaitu da eta emaitzak 2023ko aurrekontuan sartu dira.
- Azterketa- eta hausnarketa-prozesua beste 10 aurrekontu-programatara zabaltzea. Prozesu hori 2022an hasi zen, eta departamentuekin landuko da 2023an. Emaitzak 2024ko aurrekontuan sartuko dira.

EBAren entzute-prozesuaren ondorioz, hari lotutako aplikazioen berritzea gauzatzen ari da, eta aurrekontuak egitea ahalbidetzen duen aplikaziotik hasi dira. Programen fitxen lana erraztuko duten hobekuntzak sartu dira. Besteak beste, politika transbertsalen diagnostikoaren tratamendua, orain, tratamendu orokorraren pantaila beretik egingo da, eta berdintasun planarekin duen lotura programaren ekintzatik.

Halaber, informazio-eremu gehiago txertatu dira adierazleen erregistroan. Adibidez, berau nola kalkulatu den formula. Gainera, emakumeen eta gizonen artean segmentatzeko aukera gehitu da.

Azkenik, 2022ko ekitaldian gauzatutako EBA datuen ustiapenean aurrera egitea aztertu da, eta, beste ekintza batzuek lehentasuna dutenez eta maila teknikoan aurrera egiteko zailtasunak daudenez, azterketa-fasean jarraituko da.

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak**

**1. Jarduketa ildoak:**  
Aurrekontu programak kudeatze planetan bihurtzea.



% 50,24



% 49,76

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>42.744,31</b>	<b>42.744,31</b>	<b>41.987,85</b>		
<b>1.1 Ekintza</b> Aurrekontu programak eta haien adierazleak berrikusi.	21.745,23	21.745,23	21.480,29		100,00
<b>1.2 Ekintza</b> Aurrekontuaren genero eraginaren txostena hobetzeko prozesua.	1.749,61	1.749,61	1.728,30		100,00
<b>1.3 Ekintza</b> EBA tresnaren erabilera-azterketa KEWn	1.249,47	1.249,47	1.234,26		10,00
<b>1.4 Ekintza</b> Aurrekontuak genero-ikuspegitik egiteko metodologia eguneratzea	18.000,00	18.000,00	17.545,00		100,00

### Konpromiso kredituak


	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>		<b>17.545,00</b>	<b>17.545,00</b>
<b>1.4 Ekintza</b> Aurrekontuak genero-ikuspegitik egiteko metodologia eguneratzea		17.545,00	17.545,00

**Urteko helburua:** Foru sektore publikoaren jarduketa ekonomiko egokia bermatu.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Foru sektore publikoaren jarduerak ekonomiko egokia bermatzea	Bai/Ez	Bai	Bai	Bai	Bai
Betetze-ikuskapenen kopurua handitzea	Kopurua	0,00	4,00	4,00	5,00

### Joera

Betetze-ikuskapenen kopurua handitzea – Kopurua



Memoria

Foru sektore publikoko entitateen jarduketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatu jarduketa ildoak % 78,33 aurrerapen-maila du, eta % 96,63ko aurrekontu-gauzatzea.

Fiskalizazio- eta auditoretza-jarduerak normaltasunez eta aurreikusitako egutegiaren arabera egin dira.

Kontratazioaren arloko plegu-ereduak eguneratzeko prozesua urteko lehen hiruhilekoan amaitu zen. Bigarren hiruhilekotik aurrera, eredu espezifiko bat landu da BEEPren funtsekin finantzatzeko diren kontratazioetarako.

Azkenik, sektore publiko foraleko administrazio-erakundeetan kontrol-mekanismoak indartzeko ekintza da atzerapen handiena duena, erakunde parte-hartzaileen agendak antolatzeko zailtasunagatik.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Foru sektore publikoko entitateen jarduketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatu



% 0,04



% 99,96



**Ordainketa kredituak**

	<b>Hasierako aurrekontua</b>	<b>Behin betiko aurrekontua</b>	<b>Gauzatzea</b>	<b>Sarrera lotua</b>	<b>Aurreratze gradua</b>
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>813.995,56</b>	<b>819.261,43</b>	<b>791.624,20</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Ikuskatze eta auditoretza jarduketak.	753.758,76	759.024,63	732.121,28		85,00
<b>1.2 Ekintza</b>					
Kontratazio inguruko pleguen ereduak mantendu eta eguneratu.	29.243,59	29.243,59	28.887,31		100,00
<b>1.3 Ekintza</b>					
Foru Sektore Publikoko ezaugarri administrazioa dituzten entitateen kontrol-mekanismoa indartu.	30.993,21	30.993,21	30.615,61		50,00

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren eboluzioa:**

Programak egin eta kudeatzen dituzten pertsonen zeharkako ikuspegian eragitea. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin eta lau programen arduradunekin egiten ari den prozesu pilotuaren emaitzak EBA prestatzeko eta haren jarraipena egiteko sistemetan sartzea, eta gainerako aurrekontu-programetara zabaltzea.

**Kuantifikazioa:** 9.451,33 ( % 0,34 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	( % 16,00 )	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	100,00	
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	( % 44,00 )	Go.5.1.3. GFAREN azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	100,00	
Go.HO.5.5. Lan metodologiaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitzea GFAREN aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko	( % 40,00 )	Go.5.5.1. Foru Aldundiko teknikarien eta genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontu gaietan adituak diren arteko topaketak egitea gaur egun dauden metodologiei buruzko ezagutzak handitzeko.	75,00	

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Hizkuntza berdintasunaren zeharkakotasuna txertatzeko lanean jarraitzea, programen kudeatzaileei emaitzetara bideratutako aurrekontuan txertatzeko behar diren tresnak emanez.

Bestalde, aurrekontuen, kontabilitatearen, finantzen, kontu-hartzearen eta ikuskaritzaren kudeaketak dakartzan aplikazio informatikoak eta barne- eta kanpo-komunikazioa Foru Aldundiaren hizkuntza-irizpideen arabera garatu behar dira, eta, zehazki, Ogasun eta Finantza Departamentuan euskararen erabilera kudeatzeko planaren arabera.



**Kuantifikazioa:** 44.812,76 ( % 1,63 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	( % 33,33 )	Neurria: Euskaraz egitea Aurrekontu Zerbitzuak aurrekontuen inguruan beste zerbitzuekin dituen elkarrizketa telefonikoen % 25. Tresna: Neurria langileei jakinaraztea. Egiatagarria: Zerbitzuak jarraipena eginez.	100,00
3.4. Baliabide informatikoak	( % 66,67 )	Neurria: Formatu elebidunean diseinatzea aplikazio informatikoen % 100. Tresna: Aplikazioen itzulpena. Egiatagarria: Garapenari jarraipena eginez.	92,50

GJH

**Kuantifikazioa:** 3.016.194,53 ( % 109,59 )

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<b>5-GENERO BERDINTASUNA</b> Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	<b>23.487,33</b>	<b>14.036,00</b>
<b>Helbubura</b>	5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan.	23.487,33	14.036,00
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Aurrekontu programak kudeatze planetan bihurtzea.	15.871,70	14.036,00
	Foru sektore publikoko entitateen jarduketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatu	288,87	
	Aurrekontu politikaren kudeaketa, egonkortasun terminoetan.	7.326,76	
	<b>16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b> Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>2.709.122,20</b>	<b>269.549,00</b>
<b>Helbubura</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	2.709.122,20	269.549,00
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Aurrekontu programak kudeatze planetan bihurtzea.	26.116,15	3.509,00
	Foru sektore publikoko entitateen jarduketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatu	791.335,33	
	Aurrekontu politikaren kudeaketa, egonkortasun terminoetan.	1.891.670,72	266.040,00
<b>Guztira</b>		<b>2.732.609,53</b>	<b>283.585,00</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Baimendua Autorizado</b>	<b>Xedatua Dispuesto</b>	<b>Gauzatzea Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	2.520.845,00	2.520.845,00	2.491.460,29	2.491.460,29	2.491.460,29	98,83
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	139.000,00	144.265,87	122.941,04	122.941,04	122.941,04	85,22
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>2.659.845,00</b>	<b>2.665.110,87</b>	<b>2.614.401,33</b>	<b>2.614.401,33</b>	<b>2.614.401,33</b>	<b>98,10</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	168.960,00	168.960,00	168.960,00	168.960,00	118.208,47	69,96
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>168.960,00</b>	<b>168.960,00</b>	<b>168.960,00</b>	<b>168.960,00</b>	<b>118.208,47</b>	<b>69,96</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>2.828.805,00</b>	<b>2.834.070,87</b>	<b>2.783.361,33</b>	<b>2.783.361,33</b>	<b>2.732.609,80</b>	<b>96,42</b>



**PROGRAMAREN AUREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales</b>	<b>Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos</b>	<b>Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados</b>	<b>Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		17.545,00	17.545,00	17.545,00	100,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>		<b>17.545,00</b>	<b>17.545,00</b>	<b>17.545,00</b>	<b>100,00</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	359.040,00	359.040,00	266.040,00	266.040,00	74,10
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>359.040,00</b>	<b>359.040,00</b>	<b>266.040,00</b>	<b>266.040,00</b>	<b>74,10</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>					
<b>Guztira / Total</b>	<b>359.040,00</b>	<b>376.585,00</b>	<b>283.585,00</b>	<b>283.585,00</b>	<b>75,30</b>



**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.780.149,25	711.310,78		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	639,76	122.301,27		17.545,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>1.780.789,01</b>	<b>833.612,05</b>		<b>17.545,00</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	118.208,47		266.040,00	
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>118.208,47</b>		<b>266.040,00</b>	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.898.997,48</b>	<b>833.612,05</b>	<b>266.040,00</b>	<b>17.545,00</b>
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>67,01</b>	<b>29,41</b>	<b>70,65</b>	<b>4,66</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Sarrerren kapituluak Capítulos de ingresos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Gauzatze Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>	<b>Gastuari lotutakoak Afectados a gasto</b>
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	5.000,00	5.000,00	123,83	2,48	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	14.000.000,00	14.000.000,00	14.200.000,00	101,43	
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES					
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>14.005.000,00</b>	<b>14.005.000,00</b>	<b>14.200.123,83</b>	<b>101,39</b>	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>					
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS	35.790.494,00	50.227.579,92			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>	<b>35.790.494,00</b>	<b>50.227.579,92</b>			
<b>Guztira / Total</b>	<b>49.795.494,00</b>	<b>64.232.579,92</b>	<b>14.200.123,83</b>	<b>22,11</b>	



## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	06 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
<b>Atala:</b>	0620 - Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	210 - Zor Publikoa eta Foru Diruzaintza
<b>Funtzionala:</b>	011 - Zor Publikoa

### Programa mota:

Foru Aldundiaren egitura

### Misioa:

Ziurtatzea foru sektore publikoko entitateek behar dituzten finantza baliabideak merkatuko baldintza onenetan lortzen direla, finantza entitateekin kontratazio prozesuak gauzatu, gastu politiketarako baliabideak diruzaintzako planifikazio eta kudeaketa ekonomikoaren barruan bermatzeko.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

2022ko ekitaldi konplexu baten ondoren, euskal ekonomiak % 4,3 haztea lortu zuen, eta enpleguak, berriz, % 3,1. Errusiaren inbasioak, energiaren merkatuko tentsioek, inflazio handiak, garatutako arlo ekonomiko nagusietan diru-politikaren zeinu-aldaketak eta Txinako zero COVIDaren politikak eragindako borrokei aurre egitea lortu zen horrela.

Hala ere, egoera ekonomiko konplexu horrek ez du ondorio negatiborik izan GFaren finantzetan, eta Zerga-bilketa hobekuntza handia, ekitaldiko aurrekontu-emaiza ona eta diruzaintzako gerakinaren hobekuntza nabarmena erregistratu dira. Hori dela eta, abiapuntu ezin hobea dugu etorkizunean onartuko diren aurrekontu-agertoki desberdinei finantza bidez aurre egin ahal izateko, epe ertainean likidezia-maila oso handia eta finantza-kostu oso txikia bermatuta izanik.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantza-kaudimena oraindik ere ona da, eta kreditu-kalifikazioa AA-n kokatzen da, legegintzaldirako ezarritako helburua, lor daitekeen gehieneko nota, hain zuzen ere, Estatuaren notarekiko 3 maila baino gehiagoko alderik ezin izanik, mugatuta dagoelako.

Hizkuntza-berdintasunari dagokionez, euskararen erabilera kudeatzeko planaren helburuak betetzera bideratzen da, eta, bereziki, erakundetik kanpoko solaskideekin ahozko erabilera areagotzera.

### Beharraren eboluzioa:

Obligazioak garaiz betetzeko diru-baliabideak denboran banatzea, diruzaintzako plangintzaren bidez, epean ordaintzeko betebeharrak kontuan hartuta, diruzaintzako soberakinak errentagarri eginez eta finantza-kostua minimizatuz interes-tasetan izandako aldaketa handiaren aurrean.

2021 eta 2022ko aurrekontu-ekitaldi bikainek, iazko zorra zero kostuan formalizatzeak eta diruzaintzako gerakinaren bilakaera positiboak 2022rako aurreikusitako zorpetzea formalizatze beharrik gabe utzi dute. Behar diren baliabideak ditugu izaera estrategikoko inbertsioei aurre egiteko, kontrolatutako finantza-ingurune batean, eta pixkanaka zorpetzea murrizteko bideari ekin diogu, etorkizunean jasangarritasuna lortzeko helburuarekin.

### Nori zuzendua:

Foru sektore publikoa

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Pertsonalak, finantzarioak, informatikoak

### 2. Garatu beharreko

Kudeaketa finantzarioa.

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Baliabide finantzarioen lorpena.

## Programaren arau esparrua:

4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearena. 19/2016 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, departamentuen egiturari buruzkoa. Herri administrazioaren araudi orokorra.


## 2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

**Urteko helburua:** Foru sektore publikoan, aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasuna lortzea legealdiaren amaieran.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Ratingaren kalifikazioa	Testua	A+	AA-	A+	AA-
KSE betetzea=Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa	Bai/Ez	Bai	Bai	Bai	Bai
GFAREN formalizatutako zorra (Milioi eurotan)	Kopurua	548,80	496,00	456,12	551,00

### Joera

GFAREN formalizatutako zorra (Milioi eurotan) – Kopurua



### Memoria

Arau fiskalak eteteko ingurune batean, Estatuaren eta EAERen artean aurrekontu-egonkortasunaren arloan lortutako akordioaren arabera, kontuan hartu da lurralde historikoen zerga-ahal zabala. Krisi ekonomikoko egoera baten aurrean, berehala jasaten dituzte diru-sarreraren jaitsierak, beste administrazio batzuen transferentzia arruntekin konpentsatu ezin direnak, eta, beraz, zorpetzera jo beharra izan dezaketena. Laburbilduz, ez dira toki-erakundetzat hartzen defizita eta zorra izateko aukerari dagokionez.

Hala ere, 2021eko eta 2022ko aurrekontu-ekitaldi bikainen ondorioz, eta diruzaintzako gerakinaren bilakaera positiboa zela eta, hasiera batean aurreikusitako zorpetzea ez formalizatzea erabaki zen. Horrela, 2022ko ekitaldia ixtean, zorpetze formalizatua 456,12 milioi eurokoa izan zen, eta zorpetzea murrizteko bidea hasi zen, epe ertainean jasangarritasuna lortzeko helburuarekin.

### Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

## 1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketa egitura optimoa definitzea, finantzaketa jasangarritasunaren esparruan.



% 0,38

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>47.487.346,77</b>	<b>42.132.438,09</b>	<b>41.929.570,67</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Plan finantzarioa egitea, finantzaketa beharrak detektatuko dituenak.	74.299,88	74.299,88	72.961,16		100,00
<b>1.2 Ekintza</b>					
Gastu finantzarioaren minimizazioa, zorpetzea aktiboki kudeatuz	47.323.775,02	41.968.866,34	41.769.234,90		100,00
<b>1.3 Ekintza</b>					
Eragiketa finantzarioen negoziazioa, GFaren beharren eta aurrekontu-agertokiaren araberakoa	89.271,87	89.271,87	87.374,61		100,00

## 2. Jarduketa ildoak:

Urteko ratingean kalifikazio positiboari eustea, gure inguruneari dagokionez.



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>119.055,07</b>	<b>119.055,07</b>	<b>116.641,08</b>		
<b>2.1 Ekintza</b>					
Prestatzea GFaren ahalmen finantzarioari jarraipena errazago egiteko behar den informazioa	119.055,07	119.055,07	116.641,08		100,00

### Departamentuaren jarduketa operatiboa


**Urteko helburua:** Kobrantza eta ordainketa prozesuen arintzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
------------	-----------------	--------------	-----------------------	------------------	----------------------

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Batezbesteko ordainketa epea	Kopurua	18,50	21,00	19,15	22,00

## Joera

Batezbesteko ordainketa epea – Kopurua



## Memoria

Kobratzeko eta ordaintzeko prozesuak arintzeko, honako jardura hauek egin dira:

- Kontuen titulartasunak eta helbideratze-baimenak kudeatzeko aplikazioaren (NIREKO) erabilera beste erakunde batzuetara hedatzea. Era berean, kontuak egiaztatzea eskatzen duten beste aplikazio batzuekiko interkonexioa lantzen ari da, kobrantzetan eta ordainketetan segurtasuna areagotuz.
- GFAn erregistratutako abalak eta bermeak araztea, abalen aplikazio berrian informazio eguneratua sartzeko.
- Ordainketen baliozkotze bikoitzeko prozedura berria ezartzea Nire online ordainketa -ren bidez, SPT berriak erabiltzea dakarrena.
- Ordaintzeko agiriak kudeatzeko aplikazio berrira emigratzea.
- Jardura ekonomikorik ez duten pertsona fisikoen kasuan, EBko kontuetan helbideratzeen eskakizunera informatikoki egokitzea, SEPA zuzentaraua betez.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Diruzaintzako prozesuak aztertu, horiek sinplifikatu eta hobetzeko



## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>254.997,16</b>	<b>254.997,16</b>	<b>250.402,69</b>		
<b>1.1 Ekintza</b> Foru diruzaintza kudeatzea, ordaintzeko epeak bizkortuz	198.529,26	198.529,26	194.952,21		78,28
<b>1.2 Ekintza</b> xxx	56.467,90	56.467,90	55.450,48		100,00

## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Euskararen erabilera sustatzea lan-hizkuntza gisa, eta euskarazko ahozko eta idatzizko komunikazioa sustatzea erakunde laguntzaileekin, bai eta zergadunekin eta Zerbitzuarekin harremana duten beste kolektibo batzuekin ere, hizkuntza-normalizazioa lortze aldera.


**Kuantifikazioa:** 42.991,71 ( % 0,10 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	( % 25,00 )	Hizkuntzen erabilera orekatua bultzatuko da eta edozein kasutan hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Dokumentu guztiak elebitan egongo dira.	100,00
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten herritar, enpresa eta erakundeei zuzendutako txostenak euskaraz sortzeko urratsak emango dira.	100,00
		Herritar guztiei elkartarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko aukera emango zaie.	100,00
5.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu- hornitzaileak, etab.	( % 75,00 )	5.2.1. Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	66,67
		5.2.2. Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	66,67

**GJH**

**Kuantifikazioa:** 527.379,54 ( % 1,25 )

**Programari lotutako GJH zerrenda**

<b>GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak</b>		<b>Ordainketa kredituak</b>	<b>Datozen urteetako gastuak</b>
	<b>16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b> Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>527.379,54</b>	
<b>Helburura</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	527.379,54	
	<b>Jarduketa ildoak</b>		
	Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketa egitura optimoa definitzea, finantzaketa jasangarritasunaren esparruan.	160.335,77	
	Urteko ratingean kalifikazio positiboari eustea, gure inguruneari dagokionez.	116.641,08	
	Diruzaintzako prozesuak aztertu, horiek sinplifikatu eta hobetzeko	250.402,69	
<b>Guztira</b>		<b>527.379,54</b>	



## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	594.399,00	594.399,00	583.689,27	583.689,27	583.689,27	98,20
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	52.000,00	52.000,00	50.505,40	50.505,40	50.505,40	97,13
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS	7.300.000,00	1.945.091,32	1.747.419,76	1.747.419,76	1.747.419,76	89,84
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>7.946.399,00</b>	<b>2.591.490,32</b>	<b>2.381.614,43</b>	<b>2.381.614,43</b>	<b>2.381.614,43</b>	<b>91,90</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS	39.915.000,00	39.915.000,00	39.915.000,00	39.915.000,00	39.915.000,00	100,00
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>	<b>39.915.000,00</b>	<b>39.915.000,00</b>	<b>39.915.000,00</b>	<b>39.915.000,00</b>	<b>39.915.000,00</b>	<b>100,00</b>
<b>Guztira / Total</b>	<b>47.861.399,00</b>	<b>42.506.490,32</b>	<b>42.296.614,43</b>	<b>42.296.614,43</b>	<b>42.296.614,43</b>	<b>99,51</b>





**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	333.286,59	250.402,69		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	50.505,40			
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS	1.747.419,76			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>2.131.211,75</b>	<b>250.402,69</b>		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>				
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS	39.915.000,00			
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>	<b>39.915.000,00</b>			
<b>Guztira / Total</b>	<b>42.046.211,75</b>	<b>250.402,69</b>		
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>98,92</b>	<b>0,59</b>		



<b>PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA</b>					
<b>Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Gauzatze Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>	<b>Gastuari lotutakoak Afectados a gasto</b>
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES			559.153,54		
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>			<b>559.153,54</b>		
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>					
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS	39.915.000,00	39.915.000,00			
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>	<b>39.915.000,00</b>	<b>39.915.000,00</b>			
<b>Guztira / Total</b>	<b>39.915.000,00</b>	<b>39.915.000,00</b>	<b>559.153,54</b>	<b>1,40</b>	

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	06 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
<b>Atala:</b>	0630 - Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	300 - Zerga eta Finantza Politika
<b>Funtzionala:</b>	931 - Politika ekonomikoa eta fiskala

### Programa mota:

Departamentuaren egitura

### Misioa:

Foru Gobernuari zerga eta finantza politikako ildo nagusiak definitzen laguntzea gai horien inguruko araudia garatuz; horrekin lortu nahi da desberdintasun ekonomikoak murriztea, garapen ekonomikoa, enplegua eta ongizatea bermatzea, beste lurralde historikoekiko harmonizazio maila hobetzea, eta garapen ekonomikoak behar duen segurtasun juridikoa indartzea.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

- Europako zenbait zuzentarau onartzeak Gipuzkoako zerga-antolamenduan aldaketak egitera behartzen du.
- Aldaketa edo erregulazio espezifikoak sartzeko beharra, interes sozial edo ekonomikoko portaera jakin batzuk sustatzeko.
- GLHaren zeharkako zergen egokitzapena lurralde erkideko aldaketetara.
- Departamentuaren xedapen eta egintzen segurtasuna bermatzea txostenen eta beste neurri batzuen bidez, eta 2023an prozedura administratibo eta judizialen jarraipena egitea.
- Ekarpunen legea indarrean dago 2022-2026 epealdirako.
- Kupoaren Legea indarrean dago 2022-2026 epealdirako.
- Baliabideak banatzeko EAEko eredia oso konplexua da, eta edozein lurraldetako zerga bilketan gertatutako aldaketek eragina dute gainerakoen baliabide erabilgarrietan.
- Udalek zailtasunak dituzte aurrekontu egonkortasunaren araudiaren helburuak bete dituzten ala ez neurtzeko.
- Aurrekontu egonkortasuneko arau fiskalak aktibatu egingo dira berriro 2024tik aurrera.
- EGEF eta EGIFen 2021-2027 programazio epealdia abian jarri da.
- Europar Kontseiluak Next Generation EU funtsak onartu ditu.

### Beharren eboluzioa:

- Foru arau bat onartzea nahitaez sartu beharreko Europako zuzentaruetak aldaketak eta beste tributu-neurri batzuk jasotzeko.
- Dagozkion xedapenak onartzea (tributuen arloko etorkizuneko foru-dekretu arauemaileak), lurralde erkidean onartutako aldaketak nahitaez aplikatu beharreko zeharkako zergetan sartzeko.
- 2023an zenbait zerga erregelamendu aldatzea, erregelamendu garapenak funtsezko araudiaren aldaketetara egokitzeko.
- Departamentuaren xedapenen eta egintzen segurtasuna hobetzea, txostenen eta beste neurri batzuen bidez.
- GFAREN interesak defendatzeko prozedura administratibo eta judizialetak jardueren koordinazioa eta jarraipena egitea.
- Etengabe egin behar da zerga bilketaren eta erakundeekiko konpromisoen segimendua, baita horien etorkizuneko bilakaera aurreikusi ere.
- Tresnak eta laguntza eman behar zaizkie udalei legeak eskatzen dietena bete dezaten.
- Aurrekontu egonkortasuneko irizpide berrietara egokitu behar da Gipuzkoako toki entitateen araubidea, baita finantza tutoretzakoa ere.
- EGEF eta EGIFen 2021-2027 programa berrien prozedurak martxan jarri behar dira.
- Next Generation EU funtsak Gipuzkoara ekartzeko eskakizunak bete behar dira.

### Nori zuzendua:

Zergadunak, Ogasun eta Finantza Departamentua, Aldundiko beste departamentuak, Batzar Nagusiak, toki entitateak, Eusko Jaurlaritza.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Teknikariak, kanpoko aholkularitza, baliabide ekonomikoak eta teknologikoak.

## 2. Garatu beharreko

- Aholkularitza juridikoa emateko eskaerak jaso, aztertu, ikertu eta erantzuna garatu.
- Araugintza prozedura bitartez araua garatu.
- Zergei buruzko azterlanak, txostenak, simulazioak, estatistikak edota ikerketa juridikoa.
- Erakunde finantzaketaren inguruko azterketak, txostenak, simulazioak eta estatistikak.
- Udalentzako laguntza: arreta telefonikoa, posta elektronikoa bidezkoa eta aurrez aurrekoa; bilerak antolatzea; txosten informatiboak helaraztea...
- Europako funtsen kudeaketa: departamentuek egiten dituzten lanen egiaztapenak egitea, diru-laguntzak izapidetzea.

## 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Aholkularitza juridikoa
- Arau proiektuak
- Zergei buruzko analisia
- Erakunde finantzaketaren analisia
- Udalentzako aholkularitza
- Europako finantzaketa lortzea.

### Programaren arau esparrua:

Zerga eta finantza arloko araudi aplikagarria. Administrazio publikoaren araudi orokorra. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko araudi aplikagarria. Hizkuntza berdintasunari buruzko araudi aplikagarria.


### 2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

**Urteko helburua:** Finantza nahikotasuna bermatuko duen finantzaketa eredu instituzionala kudeatzea, ongizate estatua definitzen duten zerbitzu publikoei eusteko.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Diru bilketan erabilgarri dauden baliabideen pisua	Ehunekoa	16,49	16,20	15,98	16,25
Gipuzkoaren zerga bilketaren pisua EAEn.	Ehunekoa	99,74	99,00	99,00	99,00
Gipuzkoak EAEn erabilgarri dauden baliabideetan duen pisuaren eta biztanleriari dagokionez duen pisuaren arteko erlazioa	Ehunekoa	99,88	95,00	97,13	95,00

### Joera


Diru bilketan erabilgarri dauden baliabideen pisua - Ehunekoak



Gipuzkoaren zerga bilketaren pisua EAEn. - Ehunekoak



Gipuzkoak EAEn erabilgarri dauden baliabideetan duen pisuaren eta biztanleriari dagokionez duen pisuaren arteko erlazioa - Ehunekoak



## Memoria

Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuak parte hartu du Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren (FPEK) 2022-02-14ko, 2022-04-01eko eta 2022-10-14ko bileretan aztertu beharreko informazioa osatzen eta analizatzen.

Ezohikoa izateagatik, nabarmendu behar da FPEK-k Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Plana 2022-2024 onartu duela. Plan horrek aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiaren lau proiektu finantzatzea, 32 milioi euroekin guztira.

Era berean, Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuak parte hartu du Gipuzkoako Finantza Kontseiluaren 2022-02-15eko eta 2022-10-17ko bileran aztertu beharreko informazioa osatzen eta analizatzen.

Parte hartu du, baita ere, Ekonomia Itunaren Batzorde Mixtoaren (EIBM) 2022-11-17ko eta 2022-12-27ko bileretan landu beharreko informazioa aztertzen eta analizatzen.

EIBMren akordioen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Zerga berriak eta aldi baterako bi grabamen ituntzea adostu du.
- Kupoaren metodologia adostu du, 2022-2026 epealdirako.
- Berretsi egin du Estatuaren Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak 2022-09-28an hartutako akordioa, aurrekontu egonkortasunari buruzkoa, 2023ko ekitaldirakoa. Akordio horren bidez ezarri ziren defizit helburu hauek (erreferentzia tasak): Jaurlaritzarentzat, BPGaren %0,6 (493 milioi); eta aldundientzat, %0,1 (82 milioi). Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2022-11-08ko bileran, 3/2022 Foru Dekretu-Araua onartu zuen. Horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitutako defizit helburuaren %40 udalei laga zitzaien.

Gipuzkoaren zerga bilketa % 4,8 hazi da 2022an, aurreko urtearen aldean. Bariazio hori Araban eta Bizkaian gertatutakoaren azpitik dago: %9,7 eta %8,2, hurrenez hurren. Izan ere, 2021ean, Gipuzkoan, ezohiko sarrerak gertatu ziren, kopuru handikoak. Gipuzkoako zerga bilketa Arabakoaren eta Bizkaikoaren azpitik hazi izanak baliabide erabilgarriak kaltetzen ditu, Gipuzkoak ere aurre egin behar baitie beste lurraldeetan gertatutako sarrera handiagoen ondoriozko ekarpen handiagoei.

Bestalde, 2020ko behin-behineko kupoa ez zen errebisatu urte horretan, nahiz eta pandemia nozitu; erregularizazio hori 2021ean egin zen, eta horren ondorioz aurreko urteko kupoaren likidazioa negatiboa izan zen, 307 milioi eurokoa. Ezohiko gertaera hori, jakina, ez zen 2022an errepikatu, eta horrek eragin negatiboa du baliabide erabilgarriek 2021 eta 2022 artean izandako bariazioan.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Erakunde finantzaketa ereduaren segimendua, analisisa eta hobekuntza proposamena.



% 50,00



% 50,00

**Ordainketa kredituak**


	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>187.047,74</b>	<b>187.047,74</b>	<b>192.692,10</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Finantzaketa instituzionalari buruzko txostenak prestatzea	93.238,87	93.238,87	96.011,16		100,00
<b>1.2 Ekintza</b>					
Finantzaketa instituzionalari buruzko lan taldeetan parte hartzea	93.808,87	93.808,87	96.680,94		100,00

**Urteko helburua:** Zerga sistema desberdintasun ekonomikoak murrizteko egiazko tresna bilakatzea, zerga eta finantza alorrean dugun arau ahalmena erabiltzea garapen ekonomikoa, enplegua eta ongizatea hobetzeko, Sustapen Ekonomikoko Departamentuarekin elkarlanean.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Abiarazitako zerga politikarengatik sortutako inbertsioa	Kopurua	899.600.000,00	790.000.000,00	718.819.000,00	3.125.000.000,00
PFEZaren birbanaketa gaitasunaren indizea.	Kopurua	6,32	6,15	6,07	6,20

**Joera**

Abiarazitako zerga politikarengatik sortutako inbertsioa – Kopurua



PFEZaren birbanaketa gaitasunaren indizea. – Kopurua



## Memoria

2021an onarturiko xedapenak: 44

- Foru Arauak: 4
- Foru Dekretua-Arauak: 3
- Foru Dekretuak: 3
- Foru Aginduak: 34

Onarturiko xedapenak esteka honetan daude ikusgai:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/araudia/kronologikoa/-/urtea/2022>

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Nazioarteko praktikarik onenak aztertzea.



% 50,00



% 50,00

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	20.954,71	20.954,71	21.577,77		
<b>1.1 Ekintza</b>					
